

Pagoa geldi dago remix

Behin atrebitu ninduan hiri idazten. Hilberri hintzen eta hika egin nian. Erreparo handia izan nian orduan, baina itxuraz ez hintzen askorik haserretu erregistro hautuarekin –ez huen trumoirik ekarri gugana, ez hituen soroak sikatu, edo Aralar erre–. Hikak parez pareko harremana aldarrikatzen dik, eta hik ere hori nahi izan duk gizaberetxoontzat, herri honentzat. Horregatik, JAKINEk emandako enkargua elkarren artean egitea pentsatu diat. Ondo ondo jarri eta hire *Hitz berdeak* liburu-ko *Pagoa geldi dago* poema aldatu behar diagu, Joxe. Bai, bikaina duk, baina ez zekiat ondo bertsoak diren, edo propio aldatu hituen arauak. Bertsolariontzat, bekatu duk zortziko txikiko itxurako olerkiak 7/6 silaba ez izatea. Eta hik hainbeste jakin, hainbeste, eta «mozkorrean» eta «lizunean» errimatzeak bihotzean atximur egiten zidak.

Horregatik, hartu aulkia eta etorri ondora. Ea, lehenengo bertso horretan, bigarren lerroan hanka-luzerik ez egiteko, bideari *kamino* deitzea egokia iruditzen al zaik? Hirugarren bertsoan, *nire anaia* aipatzen duk, baina feminismoak erakutsi digunarekin, *kidea* jarriko diat, ados? «Ezin du konprenitu/ nire presa bidean» bukaera errepi- katzen duk bertso gehienetan, eta ulertzen diat pagoaren gelditasuna eta gure norabait joan beharra azpimarratu nahi hituela, baina beste buelta bat ematen saiatuko gaituk. Ondo, Joxe? Agindutako karaktereetan bertso denak ez dituk kabitzen, baina onentsuenak apartatu eta besteak kaxoian gordeko ditiagu. Edo paperak zaborretara botatzekoa haiz? Gelditu al zaik zirriborrerik, Joxe? Zein hituen hire azken burutapenak?

Nik sorta hau *Emazurtz* doinuan kantatuko nikek; dotorea duk melodia hori, baina balio ditek *Triste bizi naiz eta*, *Errota zahar maitea*, edo *Maritxu nora zoaz* doinuek ere. Hiri zein gustatzen zaik, Joxe? Horre- tantxe ba. Kantatuko al ditugu elkarrekin?

Pagoa geldi dago
kamino ertzean
nire presaren presa
ezin ulertzean.
Bide gora noala
–izerdi latsean–
zergatik hain urduri
zerbaiten ehizean?

Kantsazio pozoia
daramat zainean
izanaren miztoak
mina orainean.
Pentsaketa luzeko
neke betzainean
ezin du konprenitu
zer dudan gainean.

Bihotza ihartuta
gomuta luzean
gogoa sikatuta
bidegurutzean.
Nire kide delarik
goiz zein iluntzean,
hor segiko al duzu
berreuskalduntzean?

Udazken bustiaren
arrasti morean
fedea ostu dio
Lanbrok dolorean
sentimen busti tristez
euren amorean.
Libertatea soilik
daukagu ohean.

Bizitza bizitzean
plazerez igeri
pago gazte jentilek
poza hordikeri.
Huntza besarkatzean
maitasunez eri
heltzen ausartzen gara
ia edozeri.

Nire pago kristauak
bidean oster
ezbaiko esperantzaz
datoz adostera.
Heriotza ondorena
zein bide oste da?
Eskatu gabe dato
bizarra moztera.

Harrezkero daramat
beharra kantari.
Harrien pena, txori
ikara errari.
Begi-ninietan min
duen herriari.
Noan euskal herrien
neke mandatari.